

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

152n. Zenbakia Oraila  
Maiatza  
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**AITA PEDRO ARRUPE**

JAIO: 1907-11-14

IL: 1991-2-5

“EZ NAZELA ESPAÑATARRA,  
EUSKALDUNA BAIÑO, DIÑO, BAIÑA  
NI MUNDUKO ERRITARRA NAZ”  
(JUAN ARIAS'ERI ERROMA'N)

# EDERRAREN EDER: MUNGIA

Lurra, lantzeko sortua da, giza semeen kabi eder izan dedin. Gure arbasoak leizetatik urten eben ezker, iñoz, ez ziran geldi egon. Euren tajutik etorkien bearrerako lera, artu eben lurraldea obetu ta edertzeko gogo. Mendiak deika asmetan zituen ta lurralde zearrak euren izatea opaka, landu gagizuez esaten; giza-seme arek euren, semeen semerako, lurralde landu bat itzi nai euskuen.

Berez sentitzen ebezan bizia ta etorkizuna. Bizi-bearra ta gizatasunagaitik lan egiten eben, ta barne muiñetan, asmetan eben umeenganako lei gozoak, euren burua ukatu ta Euskalerra eder bat sortzera makurtu zituan. Urte askoren buruan, eta ortan, jokatu eben Aitorren semeak, ta geldi geldika, euzko gizadi eder bat eratuta geratu zan Aiñumendi magaletik kantauri itxasora bitartean.

Lanaren bidez geroago ta gizonago ta zentzundunago biurtzen ziran euzko semeak. Era onetan, bai erri gizadiari ta bai gure lur izadiari, euren sena ta lera ziurra ezarten joiezan. Gurasoen aldetik jokabide egokia ta argitsua zan, erri jator ta bikaiña sortzeko, egite onak emon bear dautsoe ba duintasuna ta indarra giza bizitzari.

Urte askoren buruan, iñoz aspertu barik, lan ta lan, ekin ta ekin, irudi ona itzi eben gure arbasoak, ta aren lana ta aren izerdia lurean eratuta geratu ziran bein betirako. Ordu ezker gure lurra txukuna da ta euzko giza-dia liraiña. Ekiñak ta lanak, izan bere, euren aztarrena ta argia izten ditue, ondorengoei indarra opalduz.

Ondo azi ta esi diran zuzenak, gurasoen eredu ona, pozik, ikusten dabe ta euren barruan, gozaro, sustraituta geratzen jake, ta aldia datorrenean, zugatzetik lorea lez seme alaben biotzetik-arnari ederrenak jaioten dira. Gure jente leiñargiaren bizia ta jokerak datorkidaz, orain, begien aurrera.

On-damua urko-lagunaren on egiñaren etsaia da. Bide ortatik gure lurra ezin edertu daiteke. Alde batera itzi dagigun ba, txarkeri kaskar ori. Bizia aurrera eroan ta eginkizun onetan loratu dedin, gizonak biotz zabaltasuna bear dau ta ondo egiñari bear dan onetsia emon.

Gure bizitzako azken urte mordo batera begiraturik, arbasoen garai aldean lez, gaur be, Aitor bere seme-alabei deika dabil esanez: Begira, nire erria lengo urte talde luzietan lorpean bizi izan da ta arbasoak kendu zituen sasiak, barriro, indartzen ikusten nituan, bideak zulotzen ta euren inguruak barregarritzen... Itzartu zaitze, euzkotarrok, ta begiratu amaren soñari, dei egin eutsen Aitorrek euskaldun jatorrei.

Amaren negarra ikusi ta deadarra entzun ondoren, euskaldun seme leial ta zindoak amaren deiari, laguntzaren baietza emon dautso. Egiz, amari ta bere sendiari zor jakona da.

Euzkadik nortasun izpi bat lortukeran, euzko seme leiñargiak, gogoz, jaiki ziran ama Aberriaren bizia zaindu ta al dan erarik onenean bizi barritzen. Mungia lenen, gogoratuko dogu, emen, bizi garan ezkeroz. Erri onek, erdian eta alboetan, ez dauka zer galdurik. Zabala, egokia, ederra da Mungia alderdi guztietara. Gure jente jatorrak eroso eta garbi daukaz kaleak erriarren osasunerako; eguzkia doa, goizez, leiotik leiora, aize garbia ta argi urrea zabalduz bizi tokietara.

Suaizpe eder bi ditu erriaren alderdi bitara. Bata lez bestea zugatzez ta jarlekuz, ondo orniduak. Aize osasuntsua ta txorien abestiak goizetan ta arras-beran belarr ta biotzen pozgarri izan oi dira. "Aize osasuntsuaz bizia indartzera", diño gure abesti ederrak. Egiz, Mungia, osoan, aize garbiz igortzita dago alderdi guztietatik. Baiña berezkoa ez litzake naikoa gure Udal buruak erriaren edertasunagaz arduratuko ez ba-litzaz.

Kaleak, bideak, urak, danak dira gizonaren serbitzariak, baiña gizonak zaindu ta edertzen ez ba-ditu, arin, doaz buruz bera, azken ondamedira. Baiña gure erri-gizonak ezin dabe gal-zorian ikusi, ta egunerik egunera arduraz, dabilta erriaren bear-izanak jagon ta al dan giñoan, arpegi obez txukuntzen.

Egi onen asertua erriko bizi-lagunen begi ta arpegietan agertzen da. Iturriari ura darion lez, pozik dagon arpegiari irriparrea dario. Erri eder batek gidari ederrak.

Mungia, benetan, zoragarria zan lengo aldian bere, urrezko garitzak, aizeak bultzatuta, aidean ebiltzanean. Eguzkia ta soloak alkarren adiskide ziran ta bien arteko frutuak baseritarrak batzen zituan. Arek gari-ebagite urrezkoak, poza erien guraso ta seme-alaben arteko nor geiagokan. Egunak egunari poz barria ekartson ta sail barriak lurrera jausiaz, lurra bere frutua emokeran, atsedena artzen eban. Solo inguruak itxura barriaren agertzen ziran.

Lan gogorak ziran, baiña aldi artako nekien eragiñak etxe beteko atsedena eukan, gari kutxak alez beterik ikusten ziranean.

## "ZER" ONETAN ZER

Azalaren atzeko aldean Paulin'en idaz-lan argi ta garbi bat agertzen dogu. Paulin'ek Mungia'n daroaz bere zeregiña beteten guda-ostetik gaur arterako urte guztiak, bere bizitzarik geiena. Ez da ba arritzeko gauzea berak bere erria maite izatea eta bertan ikusten dauzan edertasunak agertzea. Orrez gaiñera Paulin bera olerkari ugarria ta izadi-zalea dogula jakiñik, dana dago esanda. Dana dala, Mungia'ko edertasunak eta bizitzarako egokitasunak gure olerkariak euskal-erri guztira zabaltzen dauz. Eta ori be eder-zale onen jokabidea da, beti abertzale agertzen da-ta.

Arrupe aitari joan dan ZER'en egin geuntson omenaldia, baiña euskaldun aundi onen izakerea zabala ta sakona da, orregaitik artzen dogu ZER onetan berari buruz Letona'k idatzi dauana, eta Aita Santuagaz izan dauzan artu-emonak be anaitasun-bidekoak izan dirala, beti eritxi bardiñak izan ez arren, agertzen dausku orrialde orretan ipiñi dan argazkiak.

Nok ez dau ezagutzen ogei ta bost urtetan KILI-KILI'k euskerearen alde eta umeen gorroan egin dauan lan ederra? Umeakaz batera, gaiñera, gurasoak be sartzen dira erri-zaletasunera eta euskerea erabiltera, alfabetatzera. Zoriona opa dautsegu lan onetan Retolaza jaunari eta bere lankideai.

Gure aldizkarian, asieratik agertzen izan doguz olerkiak, eta zenbaki onetan be or daukaguz Bidaguren'en elerti-giroko lan irakurgarriak.

Euskal-erriaren kondaira eta buru-jabetzaren arloan gizaldien joanean izan dauan atzerakuntza ikusteko, gauza egokia da Karlos'tarren guda arazoak ulertzea, Orretara bultzatzen gaitu 6n. eta 7n.orrialdean argitaratzen dogun eta Karlos Ibañez'ek idatzi dauan lan zeatzak.

Gure aldizkariaren alde lan ziurra eta iraunkorra egiten dau asieratik Aita Onaindiak. Oraingo onetan ez doa geienetan berak artzen dauan bidea dan elertiaren kondairatik. Arabarren Zaindari dan Prudentzio deuna gogoratzen dausku. Jaia jorraillaren 28'an izan da, Armentia'n. Bizibizi daukagu ba gogorapen ori.

Kepa, "Euskerazaleak Alkartea"n ainbeste urtetan irakasle-lana egiten diarduanak bizi-bizi agertzen dausku euskerearen arazoa. Bizkaitarrok badaukagu arlo onetan zergaitik keskatu.

Arizmendi-Arrieta abadeak Arrasate'n egin eban lana, gure erriaren aldekoa eta abade bateri dagokiona izan zan zalantza barik. Arrasate'tik urrekkoa dan Etxeberrita'ar Isidor idazleak emon dauskuz gizon aunci orren barriak.

"Euskerazaleak" urtero egiten dauan lan ederra izaten da Euskal-Astea Bizkaieraz. Aste orretan izaten diran itzaldiak ZER'en argitaratzen doguz eta oraingo onetan igazko astean izan zan azkenengo berbaldia dakargu. Kofradiai buruz benetan gauza jakingarriak eta aztergarriak emoten dira berbaldi orretan.

Orra or ZER onetan argiratazen dana. Gai orreik ikusita, barriro be dei egiten dautsegu idazleai olako edo antzeko gaiak artuta idatzi dagian. Euskerea biziko ba'da, asko idazten dalako izango da. Idatzirik ez dauken izkuntzak il egiten dira. Aurrera euskal-idazleak eta Bizkai'ko euskerea maite dozuenok. Zuen laguntza bear dogu aldizkari au aurrera aterako ba- da.

Eta azalaren gaiñeko irudia, aita Arrupe da. Oiñean ipinten dogun esaldia jakin-bearrekkoa. Argi diño "ez naz España'tarra euskalduna baiño" diño. Gero bizitzan, jakiña, bere jokabidea, lanak eskatzen eutsan neurrian, mundu guztiaren aldekoa izan da: "Mundu guztiko erritarra naz" diño berak.

---

---

# AITA ARRUPE BILBOTAR OSPETSUA

---

---



Aita Arrupe S.J.: Aita Santuaren ikustaldia gaisotegian.

Aurtengo zezeillaren 5'ean il zan Erroma'n Aita Arrupe Josu-Lagunen ogei ta zazpigarren Nagusia, gaiso luze batek amar urtetan Erroma'ko Josu-lagunen gaisotegian euki ondoren.

Arrupe'tar Kepa Bilbo'n jaio zan 1907'ko azilaren 14'an. "Gaceta del Norte" egunkariaren irasle zan etxegille baten semea zan. Gazte zala Loiola'ko lekaidetegira sartu zan eta Madrid' en ikasi eban sendakintza. Gero Japon'go misiolurrean, Laterri Alkartuen atomo-erasoa izan zanean eta Hirosima austu ebenean, bizirik urten eban.

1965'eko loraillean Nagusi Orokor izateko aukeratu eben eta lekidekideen Lagundiari 180 maillako itzulua emon eutsen. Illa bi geroago Bilbo uriko seme kutun izendatu eben.

Josu-lagundikoak euren Nagusiaren adierazkizuna onartu eta onen ikuspegiak bat egin eben.

Josu-Lagundiko Norberto Alcober'ek diñoanez, Arrupe' ren utopi edo ametsak iru oiñarrizko besanga edo euskarri eukazan: Berak Bilbo'on

umetatik artu eban kristiñau-sustraia, Madrid'en egindako ikaspideen ondorena dan jakintsuen azterketa eta ikasgai oneik kristiñau-mezuaren, Barri Onaren, barruan sartzeko alegiña, erri-jakintza orrelan argitzen dala.

Deustu'ko ikastetxeko aztertzaileak ildako Bilbo'tar eta josulaguna Lagundiaren bigarren sortzaille lez agertu dabe.

1965'eko lorailaren 22'an, Lagundiaren Bazar Nagusiko bazkideak Aita Arrupe Nagusi orokor izateko aukeratu ebenean, bere gain ezarri eben Josu-Lagundia oraingo munduaren otseintzara biurtzeko zeregiña.

Gorputz-itxuraz lotsorra izan arren buruz bidetsua zala ba-ekien eta itxaropen osoa euken arrisku aundien artean aurrera eroango ebazala bide oneik ainbeste jazoera gatx eta gogorren artean.

Gure Arrupe Josu-Lagundiaren Nagusia izateko autarkietan edestian lorturiko ondoren onena lortu zan, lurrez eta zenbakiz, 400 urtetan lortu dan ondorenik arrigarriena. Josulagunak eun laterri baiño geiagotan egozan Barri Ona zabaltzen.

Arrupe gizon neurritz gorakoagaz Josu-Lagunak, zuzenbidez eta burubidez San Ignazio'ren karisma jatorrizkoa artu eben barriro eta onoi-men onek barriztatzea ekarri eban.

Beraz, lekaidegoari, lagundiko anaiai, biotzez biurtzera egin eutsen dei. Nagusi eta lekaide izanez, beti buruan erabillen, Lagundia Eleizearen otseintzara beartuta egoala eta euren aurrean erantzukizun itzal eta aundi bat eukela berak, sarritan eskatzen eutsen Jaungoikoari zeregin au beteteko bere laguntza emon egiola.

LETONA'k

## 25 URTETAN KILI-KILI JO TA KE, BAITA 1991'EAN ERE

Areek euskerea ito  
+ Euskaldunak itsu  
= Euskerea kito!

### EUSKERAREN DEI LARRIA

"Kili-Kili" Erakundeak aurten 25 urte betetzean euskeraren egoera aztertu eta gogoan ausnarturik txartelean irudi gogor ori asmatu dot eta idazlantxo au idatzi. Irakurri egizu.

Idazlan onetako irudiak Aurelio Arteta-renak dira.

Gure euskerea, gure aurretikoen euskerea, milaka urtean iraun dauan euskerea badoakigu. Gaur aren alde ezer, eragin andiko zeozer, egiten ez ba'dogu badoakigu... betiko!

Estatu indartsu bik, Frantziak eta España'k, ito bearrean eukiaz gaiñera Euskal Erriko semeak "triumfalismo" batek eraginda begiak itsu daukez.

Frantzia'ko eta España'ko Estatuak sortu ziran ezker Euskal Erriak eta onen izkuntza euskereak ez dabe gauza onik izan. Euskereak, baztertua izanaz gainera, jazarpenak izan ditu. "Agur!" berbea bera esatea be debekatuta egon izan da iñoiz Bilbo'ko kalean. Euskeraz berba bat esatea zigortua izan da betidanik eskoletan. Gaur egun España'ko "Constitucion"ak auxe dino: "B1 castellano es la lengua oficial del Estado. Todos los españoles tienen el DEBER de conocerla". Derrigorrez "español" izan bearrean gareanok, derrigorrez jakin bear dogu, bada, "castellano" ori. Eta España'ko Konstituzinoan dagoan "Estatuto de Autonomia" k beste au dino: "B1 euskera (...) tendrá como el castellano carácter de lengua oficial en Euskadi (au da: iru probintzitan) y todos sus habitantes tienen el DERECHO a conocer y usar ambas lenguas". Euskadin, bada, erderaz jakitera beartuta gagoz, "DEBER" daukagu; euskeraz jakitera, ostera, EZ dago iñor beartuta. Nafarroan, barriz, "Amejoramiento"pean, txartoago. Eta Ipar Euskal Errian, bardinantzera.

Ito bearrean dauke, bada, euskerea Estatu biak.

Ori gitxi balitz "triumfalismo" batek eraginda, arropuzkeri batek eraginda, ametsezko munduan bizi gara euskaldunok. Euskal telebista, euskal irratiak, euskal egunkaria, euskal aldizkariak, ikastolak, ikastegiak, "EGA" tituludun

irakasleak, "A,B,D" ikastereduko ikasleak, euskeraz kale-izenak, euskeraz erri-izenak... daukaguzala eta nasai-nasai bizi gara euskaldunok. Gainera euskal politikariak, euskal Administrazioak, euskerea matematika bihurturik, onen-beste MILA "EGA" tituludun irakasle daukaguzala dirauskue deiadarka, ez dakit zenbat MILA "D" ikastereduko ikasle... Azkenean, "¡ah! ¡el retroceso del euskara ya ha cesado!" esateko.



Baiña euskerearen egiazko egoera beste bat da; euskerea, ezpanetan darabilgun euskera bizia, atzeraka doala.

25 urtez, euskerearen alde lanean diardugunok, eta aurretik be beste 25 urtez euskerearen egoerearen lekuko izan gareanok, badakigu zer diñogun. Eta esandakoa egiaz-tatzeko euskal errietara, euskal errietako eskoletara jo baiño ez daukagu.

Leenago, eskola umeak naiz eta eskola barruan erdereera erabili, jolasaldian euskeraz egiten eben; gaur, ostera, naiz eta eskola-barruan euskerea erabili, jolasaldian erderaz egiten dabe.

Leengo mendeetan euskerea lurrez gitxituz joan bada, mende onetan, mende onetako gure egunetan, zaar eta gazteen arteko katea etenez doa.

Euskerea gero eta gitxiago, gero eta traketsago egiten dala begi bistakoa da. Ori ikusten ez dauana itsu dago.

Itsu, gauza askotan gagoz euskera munduan, itsu eta gor. Esate baterako:

Lurrez eta bizilagunez ain txikia dan Euskal Erri onetan euskerea, euskalkietan bananduta daukagun euskerea, in-

## EUSKEREA

dartzeko, BATU egin bear dala ikusten ez dauana itsu dago.

Ain urri eta murriztuta, ain indarge eta landu bage, ain aul eta makal daukagun euskerea, sendotzeko, ALFABETATU egin bear dala ikusten ez dauana itsu dago.

Alfabetatzea eta batua ikastea ez dala gauza bera eta bata bestearen aurretik egin bear dala ikusten ez dauana itsu dago.



Umeak etxeko, erriko, berezko euskerea eskolan lan-tzen ez badau, gero berba egitean, alfabetatubako eran egingo dauala eta batuan egin nai izan dagianean, euskaldunbarri eran egingo dauala eta azkenean erderara joko dauala ikusten ez dauana itsu dago.

Ingeles izkuntza jakin nai dauanak, eskolan asi-masiak ikasi ondoren, Ingalaterra'ro jo bear dauanez, alantxe euskeraz jakin nai dauanak euskal errietara, euskera bizia egiten dan lekura, jo bear dauala ikusten ez dauana itsu dago.

Ezpanetan berezko euskerea dauan betiko euskaldun batek, prestaketa batzuk eginda, "EGA"-edo tituludun euskaldunbarri batek baiño euskeraz berba egiten obeto irakatsi leikela ikusten ez dauana itsu dago.

Euskera batua bideratzekoan bizkaierera (Euskal Errian zabalen dagoan euskerea) ez dala aintzakotzat artzen eta

gipuzkerea eta batua praxian gauza bera dirala ikusten ez dauana itsu dago.



Bizkaieraz egiten dauan erriak (Gipuzkoan eta Araban be gitxi-asko bizkaieraz egiten dala gogoan arturik) berezko euskera ori baztertu eta orren orde batua edo gipuzkerea egingo\_ dauala uste dauana itsu dago.

Irakaskuntzak eta Komunikabideak (Euskal Telebista, Euskadi Irratia, Egunkaria, euskal aldizkariak,...) euskera batua edo gipuzkerea beti-beti eta leku guztietan erabilirik, bizkaierera lotsagarrizko beeko mailan jarten dabela ikusten ez dauana itsu dago.

Bizkaierearen arazoa bizkaitarrena dala bakarrik eta bizkaitarrak bakarrik konpondu bear dabela iñork uste badau itsu dago.

Eta abar... abar eta abar.

Itsu dagoanak kendu dagiala, bada, begiak estaltzen deutozozan zapia eta ikusi dagiala egia dan ala ez ondorengo au:

— eguneroko bizitzarako bear-bearrezko ez dan izkuntza,  
— mengel, indarge eta gaurkotu bage daukagun izkuntza,  
— gitxi, modu askotara, txarto eta edozelan darabilgun izkuntza,

— beste izkuntza (frantsesa naiz espaiñola) indartsuaz batera erabili bear dogun izkuntza,

— legeak itota daukan izkuntza onek badau etorkizunik? Badau urtenbiderik?

Bai, badau guk gura badogu. Baiña...

— badabe euskal politikariak eta Administrazioak euskera aurrera atarateko benetako borondaterik, asmo sendorik?

— ba ete dau erriak berak?

— ba ete dogu guk geuk, zuk eta biok?

KILI-KILI'ren  
ZABAKUNDETIK ARTUTA

---

---

## LURRAREN GUNA

---

---

### LURRAREN GUNA

Zu, ni eta danok zerbait ba-gara lurrean,  
geu gara izate orren arrazoi bakarra.  
Gure izerdi gazien minbera lakarra  
dabilko aunditutako zainen zearrean.  
Taupada sendoz dabilko bularte zarrean  
illen odol galduaren erosta minkarra.  
Bizi eta illon odol t'izerdi aparra  
dabilko borbor ganezka sustraien larrean.  
Lurra, deika dogun ama, gurea, danona,  
il eta bizion bete-beteko lan ona,  
bizi eta illen malko ta barreen aterpe.  
Joandako ta geranon aragien jabe,  
berak argituko gure irainen illuna  
ta garbituko odoleko kondarren lizuna.

### URA

Atxari dariokan edur zurien guna,  
zeru goien beroak sortu deuk iri indarra  
ta ba oa gainbera, jauskari eta azkarra  
ederragotzen troka zaarren edertasuna.  
Ba oa, or, maitale, muxukatzen ibarra  
mamin dedin lugiñen itxaropen kutuna.  
Eure betean oa, baketsu ta poztuna,  
agurka ditukala altza eta zumarra.  
Egi zuri egin dok izerdien ardura  
dantza zaulienera jarriz errotarria,  
gariz beteko urrez apainduta garria.  
Gero, atsedean billa, itxasandira oa  
noiz Eguzkik deituko gora —lurrun ezkoa-  
gal ez dakian pauso ain ederren lillura.

### TXINBOA

Ba dakarsku udazkenak urteroko saria:  
bero gozo-gozoa t'aizepel jostaria.  
Ikondoko orritzean, mosu ta mosu alkar,  
maiteminduta dabiltz biak adarrik adar.  
Txinbo bat be ba dabil ikorik iko azkar,  
ezti larregiz mixkin, au itzi ta ori ar.  
Noiz ler egingo dabil lotsabako txoria.  
Ba leki jakin ondo ur dabilkon zoria!  
Ederrak erakutsiz, ezpan gorri ta lizun  
dabil frutu zorgiña, Ain gozo janaria,  
oarkabe ta zoro txinbo pekataria.  
Eiztaria, baña, zur. Alako baten pin pun.  
Berun puntutxu batel ilotz bero gozoa  
eta odol gorritu aizepelen egoa.

### TENTALDIA

Pozez eta amesetan bizi nai dot beti nik,  
ordu zurienetan ta doakidazala  
neure egunak errekan ura doan bezala,  
baketsu ta ezkoak, zorionez bustirik.  
T'urandira bidean gogora ainbat joanik.  
Apurra garan arren ta ezerez utsala  
edonontzat biziak dagokigun atala.  
Artuta nago ni be gaiztorik eta onik.  
Gaur, baña, nik bakarrik gura neuke gogora  
neure gaztearoko rnosu-gorri maitea,  
iko baten antzeko, ezti gozoz betea.  
Zugaitzpean nengokon egon begira agora,  
noiz jausko, adarrera bi eskuon luzea  
nola ase tentaldian ezti gozo-gosea.

A. BIDAGUREN A.

# SANTA KRUTZ ABADEA

Aste gitxi dirala ikusi dogu "El Cura Santa Cruz Guerrillero" izenpuruz, pelikula bat.

Orain bi urte dirala egilleak beste antzekoa egin eban: "Cronica de la Guerra Carlista". Egillea: Tuduri, tolosarra. Taju bereko dira biak. Dirutza txikiaz, baña sentzu andiaz egindakoak. Bigarren au erderaz eta euskeraz mintzaturik egoan. Bestea —oraingokoa— erdera utsaz ostantzean.

Gure ustez, nai ta beste merezi batzuk euki, ez dausku emoten Santa Krutzen iduri zeatzik. Liburu batzuk irakurrita gero, ez dogu uste orrelako itun zarreko gudari-igarlea —Tudurik erakusten dauskun lez— zanik.

\* \* \*

On Manuel Santa Krutz eta Loidi abade basagudaria zan. 1868'ko iraultza jazotean asi zan azpijokoa egiten Gipuzkoa jaikitera gobernu liberaleen aurka, Karlos VII'aren alde. Sasoi aretan Ernialdeko eliz-maisua zan.

Urte aretako bere edestia eleberrizkoa zan, jazokun arrigarriz beterikoa. Birritan giribaltzak atxilloturik, euren eskuetatik iges egin eban. Bein Ernialde berean eta beste baten Aramaioa'n. Gero gudari-xaldo bat bildu eban. Bere menpeko mutil eunkada batzuk euki ebazan. Giri-baltzen indarren aurka borrokatzen buruzagi trebe ta zuurra lakoa agertu zan. Bere ekitaldiak nagusienak gudako asieran jazo ziran; au da 1872 ta 1873'ko urteetan.

Guda aurrera joanean gudari-xaldoakaz gudarostea antolatatu bear zan. Beraz Santa Krutz Lizarraga'k Generalaren nagusitasunaren azpian ipiñi bear eban bere burua. Onelaxe agindu eutson VII Karlos Erregeak berak. Santa Krutzek, baña, ez eban onartu errege-agindua eta bere mutillak utzirik, 1873'ko garagarrilean, Frantzia'ra kanporatu zan. Urte bereko abenduan biurtu zan eta Asteasun Gipuzkoa'ko leenengo batalloian matxinada bat sortu eban. Batalloia menperaturik, bigarrenez Frantzia'ra anka egin bear izan eben.

Lill'era zuzendu zan. An, jesulagunen etxean Erromari eskaturiko zigor kanonikoen parkamenari itxaron eutson. Gero Londres'en Karmeldarren komentuan gelditu zan. Andik Jamaika'ko misioetara jesulaguneekin, ba Aramaio'n giribaltzak arrapatuta zala, Ama Birjiñari joango zala agindu ei eutson.

Jamaika'n Jesus'en Lagundian nobizi-aldia bete eban baña orduan ez eben Lagundian sartu. Gero bere bizi osoan jesulagun baltzan lez ibilli zan eta il baño len, lau urte aurretik, bere betiko naia lortu eban: Lagundian sartutea. Bitartean Beliz'en eta azkenez Paston-Kolonia'n- misiolanetan ziarduan.

Pasto'ra eldu zanean Ezekiel Moreno, agustindarra, zan ango episkopua. Alfaron (Errioxan) jaioa, baita liberalaurkako sutua

bere. Ilgo zanerako bere zerraldoan "El Liberalismo es Pecado", orduko eztabaidaturiko liburuaren ale bat, ipiñi eitela gura ebalasari esaten eban. Orregeitek Kolonia'ko jaurlaritza liberalakin eztabaida andiak eukazan ta azkenez, ao sapian minbizia eukan atxakiaz, España'ra biurtu bear izan eban, Plo X'aren aginduz. 1976'ko urtean Paulo VI'ak aldaretara jaso eban; gaur Ezekiel doatua da. Ez dago esan-bearrik episkopua ta antxiñako basogudaria lagun andiak izan zirala.



Santa Krutz Abadea pasto'ko abadegaien etxean begiratzaille.

Ameriketan Santa Krutz'ek bere bigarren abizena erabili eban beti. Beraz jesulagunen artean Aita Loidi zan. Indioak maite-maite izan eben eta santutzat artu bere. 1926'ko Dagonillaren 10ean il zan.

\* \* \*

Santa Krutz, giribaltzak iñoen baizen odolzalea ete zan? Gure ustez ez. Pentsatu geinke abadea zan ezkerko gudan sartuaz txarto egin ebalasari. Baña borrokan sarturik beste gudagizon danak oi eben lez ziarduan.



Onexek ziran bere egintzarik ospatsuenak:

Endarlaza'n ogetabi karabiñeru afusillatu ebazan. Geiago ez eutsoen autortuten utzi naiz-ta Biriatu'ko abadeak eskatu.

Gauzak onelan jazo ziran. Karabiñeruak bere koartelan, Santa Krutz'en naikogudariak inguraturik egozan. Santakruztarrak jaurtiten asi ziran kañoi txiki bategaz. Karabiñeruak ikurrin zuria atara eben. Santa Krutz'en mutillak koartelerantz joaten ziranean, barrukoak jaurketa ta naizkogudari bat il eta beste bi zauritu ebazan.

Karabiñeruak gudalegeen aurka egin ezkerro Santa Krutz'ek edozein buruzagik ipiñiko leuskien zigorra ipiñi eutsen: eriotzea. Ba-etozan Irundik indar liberalak eta autorketarako astirik ez. Orregaitik ez eutsen utzi Biriatu'ko abadeari autorten.

Aratxebaleta'n andrazko espia bat be afusillatu eban. Gero giribaltzak emakumea aurdunik egoala esango eben. Baña au eziña zala dirudi, ba amar urtean ezkondurik egon izan zan eta ez eban ekarri semerik bat bere.

Gudea irabazi ebenak nai eben lez idatzi eben edestia. Ta ipuin baltzak jasotera, nor ta abade basogudaria (erderaz, cura "trabucaire") egokienik!

\* \* \*

II zan sasoian Santa Krutz'eri buruz iru liburu idatzi ziran.

"La Croix de Sang", frantsesez. Egilea: Gaetan de Bernville. Gizon onen aitita On Isidro Marfa Ortiz de Urruela, Costa Rica'ko Miarritzen Konsula karlista gudateko sasoian zana. Santa Krutz'en laguntzalea. Alako kañoi txikia Santa Krutz'eri Don Isidro Maria'k egindako oparia izan zan. Jaun beraren beste illobea Telesforo Monzon Ortiz de Urruela— geienetan Monzon Olaso esana— zan.

Liburua idazteko On Manuel Lekuona'k —orduan abade gaztea— zertzeladak erabili ebazan. Liburuan Santa Krutz'en irudia kutsu erromantikoaz-frantsesai atsegin jaken lez- goralduta ageri da.

"BI Cura Santa Cruz Guerrillero" zan beste liburu bat. On Juan Olazabal'ek —Donostiako kazetari integrista ospetsua— egindakoa. On Manuel Lekuona'ren ezaguerak erabili ebazan eta abade basogudariaren ospe onarentzat idatzia izan be. Liburu lodia ta zeaskun askoduna.

Beste bat askoz txikiagoa Orixerena zan. "Santa Krutz Apaiza" —euskerazko izenpuruz. Abadearen goraltzariagu bere.

Abadea goraltzeko uts batzuk idatzi ebazan leenego bi idazlariak. Ba On Karlos, Lizarraga ta Dorronsoro'kin Santa Krutz'ek eukazan eztabaidetan, erruak iru gizon oneei jaurti eutseezan. Egia bestelakoa zan. Areen alde ta gauzak egoera zeatzean ipintera idatzi eben On Julio de Urkijok eta On Arsenio de Izagak, biok karlistak.

\* \* \*

Bere ekintzakak Santa Krutz'ek kalte andia egin eutsen Elizeari eta karlotasunari. Bere irudiarengandik giribaltzak atera ebezan zio ugariak euren zabalkundearentzat. Jakiña oda politika-eztabaidetan zabalkundeak daukon garrantzia.

Guda amaituta gero bere Benezia'ko jauregian On Karlos VII'ak berak bildu ebazan gomutagarri batzuk. Jauregiko areto batean (Ikurrin-Gela) gordeten ebazan ikurriñak ikertzallei erakusteko. On Julio de Urkijo sarri joaten zan Benezia'ra Erregea ikertutera eta bein onnek eskatu eutsen Ikurrin-Gela ikertzalle batzuei erakusteko. Oneek joanda gero, On Karlos'ek eroan eban Urkijo arasa batera ta kajoi bat idekirik zapi baltza artu ta tolesgabetu eban. Buru ezur zuria agertu zan. Idazkin zuriakaz bere, "Guerra sin Cuartel" irakurri al zan.



Santa Krutz Abadea "Zaintzaille baltzak" deritxoen bere taldeagaz.

— Auxe da Santa Krutz'en ikurriña-zirautson On Juliori- Ez dautsot utzi erakusten, ba nik ez neban onartu onelakorik.

España'ko Errepublikaren sasoian, gure maixu zan On Jos Maria Garcia Arana Erromaratu egin zan. Batikano'ko "monsignore" batekin barriketa bat eukitea lortu eban. Gauza askoren artean, itandu eutsen ia zergairik ziran Batikanoan ain karlisteen aurkakoak.

— Ez dakit, baña itanduko dot- zan bere erantzuna.

Urrengo baten argitu eutsen zioa:

España'ko karlistak ospe txar-txarra emon izan eusoela Elizari. Euren artean eskuak odolez zikindu ebazan abadeak izan zirala. Urliá Santa Krutz abadea...

Laburtuteko: Santa Krutz'ek "bere abade-arloetik urten ebanean kalte andia egin eutsen bere buruari, baita Elezari be eta ore aldarrikatu gura eban eta auzarti aldarrikala be, nai ta santuzko zura euki. Azkenengo auxe adierazo eban Ameriketako misioetan goan urte luzeetan.

IBAÑEZ KARLOS'ek

---

# ARABA'KO PATROIA

---



Martiaren seia, zapatua. An eta emen liburuak salgei ipiñi nairik, goizeko bederatzietan, bi Durango

laiño aldakorrez zero zokoak. Mañari'n itxi dogu liburu mordoia.

Urkiola'rako aldatz-gora. Inguruak eder; bada txoririk kantari. Zugatz batzuk, saratz, keriza ta makats, loratan ez nagí. Untzillaitz, Mugarra, eskubaratz eguzki-izpitan blei blei. Bidean, gizaseme taldeak tapa-tapa gorantza zeozek eraginda; gazte batzuk be bizikletan... Goiak saka-eginda guztiak. Andoni deunak antza danez. Santutegirantza doaz goian. Guk, gasolina kutxa ondo ornidu ondoren, an beratxoagoko ornitegian, aurrera tui-artetik zear.

Egorantza jorik bizkor-bizkor, Gopégira'ko gurtz-unea. Euritsu datoz laiñoak, egun txarra beraz or inguruko koba-zulo barriak ikuskatzeko; aurrera, ba, ezker-eskuma daukaguzan erritxoak albora itxita.

Aurrez-aurre Apodaka, leenago nik, ikasle nintzala, sarri entzuniko izena, orkoa bai zan Begoña'n gure urteetako irakasle Aita irakasle karmeldarra,

Teodosio Arteza-Landaluze. Arek esan oi eban, ne-guan batez be, Gorbeiarra begira, bere Artagan azpiko karmeldar leiotik: "Malum signum in Gorbea, cuando pluit in Apodaka". Eta, izan be, itxuraz eguraldi polita zan arren, arratsalderantza ezta be, Apodaka'n eguerdira euria me-me zalarik, Gorbeia'n zaparrada ederrak bota ebazan. Bego emen gura irakaslearen oroipen ezta.

Gasteiz'era giñanean, etzan giro ona, otz eta euri. Eta EI Prado ondolik igarotean, bertan Armentia eta bertoko Zaindariaren gomuta. Nik, urteetan, 1931'tik ikusi barik neukazan bazter areik, eta pizkat ezkerretaruz Prudentzio Deunaren Santutegirako bidea artu genduan.

Lanpar zarratua zan. Inguruan ez, baiña eleizpean ba-zan jentea: Kotxea jakiñeko lerro barruan itxirik, ara gintzazan gu be euritik iges. An egozan zortzi bat zar-gaztek buru-makurka artu ginduezan, eleizako atea be edegirik. Illun samar barrua, apurka apurka argituz joan zana. Arakatu genduan naikoa zeatz, goi ta bee, altara nagusi, erdiko ta alboko.

Eleiz —barru ta inguruan iru bat bira osotu ondoren, aundiago egin zan gure ikusi ta jakin-gurea. Idatzí edo libururen bat nai genduan, barruko irudi, altara ta zerak azalduko euskuzana. Kanporatu ta an gure itauna: Liburu edo monografirik ez al da saltzen, Santutegi oneri buruzkorik? "Bai; or goian bizi da Basilika onen ardurea daroan apaiza eta berak jakingo".

Ni konturatu orduko goian zan, apaizaren langelan nire laguna. Lirururik ez ekarren, baiña bai irudiak eta paperak, Apaizak emondakoak. Baliotsuak ziran guretzat, zabalkunderako egiñiko paper luzanga bat batez be. Erderazkoa bera; euskeraztuta, onela iñoan:

"Armentia'ko San Prudentzio. Basilika. Idatziz datorrenta da, IX'garren gizaldian ba-zala Eleiz-Katedral bat, Fortunio II'gaz 1087'an desgertu zana. Gaur zutik daukagun eleizea Rodrigo Kaskante Kalagorri ta Armentia'ko Gotzain zala jasotakoa da. Amabostgarren gizaldiaren erdirantza.

"Abside edo aurre-alde bikaiña dau, erromaniku egikerazkoa. Iru leio daukaz puntu erdiko arkuaz, ar-kibolta bikotxaz eta barru ta kanpo kapitel eder-ederakaz.

"San Prudentzio'ren Irudia (XVII), Armentia'ko semea ta Tarazona'ko Gotzaiña. Basilika ontako izenduna eta Araba'ko Lurraldeetako Patroia.

"Ojiba azprietan Ebanjelarien giza-itxurak itxura askodun maitxoetan. Ondoan bateo-arria, zakar landutako ustaitxoakaz. Korintiar erretaula (XVIII); Adar deunaren irudia eta Santa Katalina, San Roke, Santa Ageda ta San Isidro'ren irudiakaz.

"Errosarioko Andra Maria'ren irudia, Ume Jesus' egaz, eta San Migel (XVI). XVII'garren mendeko erretaula.

"Pentekoste kolorez bitxitua eta Berrugete egikeraz moldatua. Zutoin bikoiztuak kapitel arruntez, mostru ta bidutziak irudituz. Kristoren Berbizkundera eta Iru Mariak. Igokundera. Iru irudi erromaniku ikonografian... Gurutzez infernura Jastea, figura zakarretan iruditua.

"Bildots-tinpanua, eleizako ate batetik ara eroana. Zati bitan eratua dago, goikoan eta erdikoan; erdikoan idazkun onek inguratzen dau bildotsa: "Mors Ego Sum, Mortis Victor; Agnus Sum, Leo; Fortis; x. Alboetan, Juan Bautista eta Isaias. Ustaiaren giltzean irakurten da: Rex Sabaoth, Magnus. Deus est et. dicitur: Agnus. Ate-gaiñeko lerroan onela irakurten: Porta, P (er) hanc Celi fit: per via; cuique Fidei. Eta beeko atalean: Aingeru bi odei gaiñez eta Krismoi Irukoitza daroela, eta erdian 8 orriko betiereko lorea. Eta euron azpian idazkun osoez au: Huius Operis Auctores Rodericus Eps".

Eleizpean be ainbat ikusgarri daukaguz edozein tokitan ez diranak; ain-bat irudi arri pitxizko, oso raruak, benetan ederrak; etzara eurak ikusiz asetzen. Guri igarri barik joan jakun ordu bete.

Leku egokia, udarako batez be; Basilika bazterrak ez-ezik, urreko etxe, bide ta inguruak be txukun eta ikusgarri, Araba'ko Patroiaren egoitzak bere dauan legez.

Ederrez aserik, beerantza artu genduan, Gometxa, Subijana, Nanklares aldera. Bidean eskumera jorik, or Lamenetar praille irakasleen komentua ta leenago baiñu-etxea ta gaur kartzelea, leen medar orain

zabal aundi. Jirabira batzuk emon doguz an inguruan zear., nik be beiñola (1939'an) egotaldi bat an erre neban beste askogaz batera.

Eta aurrera Salinas Añana'rantz. Emen egin dogu, aterpe baten, jan-izpia. Eguzkia laiño artetik kiñuka, eguraldi ederra iragarritz, eta orrelaxe egin dausku arratsalde guztian. Autopistea zearka azpitik igarota, or ainbat bide ara ta ona daroenak, eta guk aruntzago Angosto'rakoa artu dogu ezkererantz egiñik. Gero, or inguruan bidea ebagita geunkala-ta, artezean goaz urriñeraiño, or bakartadeko errietan noizik bein geratuz, aregaz eta onegaz, itz-aspertuak egiñik, ango inguruko baseritarren bizimoduak jakin nairik. Etzan jente tristea antxiñako euskaldun erriko jente xee au. Atsegin jaku an, baita gu eurai be, antza zanez.

Ibilli ta ibilli, lenengo ezkerrean ta gero eskoira, mendiari bira egiñik: etxe barri pillo izugarriaz eta bide zabal ederrez topo egin genduan; bilbotarrenak zirala esan euskuen. Udarako toki benetan osasuntsua! Aurrerago jorik, or Crucero bide kurutzea. Emen inguruan laborari ta oporretan, Bizkaiko seme ugari bizi da. Gure agurra guztiai!

Villasante'tik zear giñan Mena goitxoan. Gu andik beera etxerantz. Arratsaldeko seirak zirala-ta. Egun ederra emonik etxerantzako bidea, beti be, atsegiña izan oi da; alaxe gurea be, udabarria noiz asiko geunkan arratsalde eguzkitsuan.

Mena ibarreko beerunzkoa benetan da atzegiña: etxe zuriak ugari, mendi txiki ta aundi asko, soloak eta artaldeak, arrano ta erroiak egazka baketsu, kortexak gora ta beera, Bizkai'ko arkaitz-gaiñak aurrez aurre, ezker-eskuma. Menagarai'ra orduko muiño bedartsuan atsedena artu genduan pizkabaten; begietan geunkan Ordunte urmaela, eta gorago ta barrurago San Roke ermitea, nik gudatean babestua.

Balmaseda uri istoriz betea. Oso dotore daukagu; erditik zear agurka igarorik, laster gara Errera'n. Naizta erri ñimiñoa, jasoz ez da ain pitiño. Azken guda-tean emantxe egon zan zati baten Eusko-Jarlaritza; baita nik be, gau bitan, emengo jauregi zarrean egin neban lo.

Emendik, Enkartzaldiko erri bipilletan zear Bilbo'ra ta Bilbotik Larra'ra.

AITA ONAINDIA

---

# EUSKERA GARBIA ALA EUSKARA KAKASTUA?

---

Azken-egun oneitan eta DEIA egunkarian, "Cartas al Director" atalean argitaratu diren iru edo lau eskutitz irakurri dodaz eta dan-danak oso txalogarriak aurkitu nebazala esan bearrean nago. Oso ondo gomutatzen naz ondiño Franco'ren aldietan eta aren ondoko egun-etan euzkeraren alde egiten ziren ekin-tzak. Egun gogorrek ziran aiek eta orduan, euzkera-ren zaindari edo jagontzalleak abertzale bioztunenak, Sabin, gure maisu izan zanaren ikasle zintzoak ziren, or, emen eta an zerbaite egiten euzkerearen alde.

Bilbo'n beintzat, lenengo Mezak eta Lauro ikastola antolatu ebenen artean ez zan besterik ikusten, emakumezko eta gizonen artean, orduan ondoen antolatuta izan zan taldeko jarraitzalleak baño; au da, Euzko Alderdi Jeltzale'an bazkidetuak izan giñenak baño ez. Beste batzuk, gerotxuago agertu ebezan euren buruak eta kukuak egiten dauan lez, euren "arrautzak" txindorreren abitxuan jarri ebezan. Esate baterako, LAURO'ko ikastolan antolatzaile izan zirenak ba dakie zeozer arazo onetaz.

Baña Euzko Jeltzale Alderdiko areik, Sabin'en jarraitzaile zintzoak zirenak, Euzko abertzaleen artean eta Euzko gaiak erabakitzen lenengoak izan ba ziran be, ez eben iñongo laguntzarik lortu. Bear ba'da, Sabin'en jarraitzaile ta euzkera garbiaren zaindari edo jagole zintzoak izan ziralako, ez eben merezi iñoren eta edozelako laguntzarik. Alderdia'ren aldetik edo ta iñongo agintarien eskuetatik ezin eben laguntza andirik lortu, Sabin'en ikasketak zintzo-zintzo jarraitu ta betetzen ebezelako. Betiko idazkerak egiten ebezan: EUZKADI, EUZKOTARRA, EUZKALDUNA, LENDAKARI, ERRI eta abar, euskara "modernoan" Euskadi, Euskotarra, Lehendakari, Herri eta abar egiten ba'da be. Eta "ortxe" egoan, nire ustez, euzkera-  
ren etorkizunerako akatsik andienatariko bat.

Sasi-igarle asko abillan gure inguruetan euren abo-tzar zabal zabaletik iñoela: "OR DABILTZ GURE ARTEKO DIREN BAZKIDE BATZUK ALKARREN AURKAKO LANETAN SARTURIK; H, L, Ñ edo Z bat geiago edo gitxiago dala-ta. Itxi eizuez alde batera ain txiki edo ezgauza diren arazo orreik eta jarraitu daigun gure beste ain andi edo garrantzi andiko diren lanetan.

Ementxe daukagu orain gure, aldi aretako, lotzagarriko nagitasun edo ardurabakotasunak ekarri dauskun sari edo ordaña. Batek edo besteak euren zortasun geienak bete ezkeru oso pozik geratzen dira, baño zoroeko eginkizun orrean ondorioak erriaren lepoetara jatorkuz eta azkenez erria da, il arte ta narrazka eroan bear dituana.

Gure agintari asko, emen, or eta an, itsu-itsuan ebillen eta ondiño be or dabiltz diru moltso andiak zabaltzen, euzkerea aurrera atareteko asmoz, baño..., ez dakit ba noraño elduko garen.

Euzkalkien alde oso gitxi egiten da edo, guk beintzat, ez dogu askorik ikusten Euzkerazaleak, Euzkerazaintza arbasoen-izkuntza-zaleak eta Labairu'tik kanpo eta oso ondo ba dakigu be, Mundu'ko izkuntzalari ospetsuenak izkuntza bakoitzak bere-bereak diren sustraietatik aberaztu bear dauela, zer egin bearke ete dogu gureak diren agintariei ori euren buru gogorretan (?) sartzeko? Noz arte itxaron bearke ete dogu, ain maite dogun Bizkai'ko gure euzkerea, gure lurraldean beintzat, irakasten asi daitezen? Bizkai'tar lez eskubide guztiak daukaguz gure eskuetan Bizkaia'n Bizkai'era irakatsi daiten eskatzeko, ba, Bizkai'ko edozein lege edo eginpidea betetzeko bear-tuak ba'gara eta ortan beste edozein euzkotar lez gure egin-bearrak betetzen ba'doguz, zergaitik ainbat alditan guk egiten doguzen eupadari gor egin eta ez jake jaramonik egiten? Asi bearke ete dogu Bizkai'tar izan eta Bizkai'tartzat gure burua daukagunok, baketsu baño aurka-egille lez, gure asmoak kaleetara ataritzen? Ori, ziur nago, batek baño geiagok, ez leukela ontzat artuko eta, guk, zertaz artu bear doguz ain gor agertzen diren gure agintari batzuen eginkisunak?

Bizkai'tar guztion abotsak entzun bearke ete dira guk Bizkaia'ren alde eskatzen doguzen ezkubideak bete daitezen?

Zuek, Aitor de Arakistain, Amale Arzeluz, Jos M.' Jimenez eta ondiño ixilik zagozen Bizkai'tar askok, alde batetik eta nik eta beste askok beste alde batzuetatik gure abotsak goratu bear doguz, bein eta betiko Bizkai'ko ikastoletan Bizkaitarrena dan euzkalkia irakasten asi daitezana. Gure didarrak entzun bearke dira nunbaiten, guk eskatzen doguna entzun eta egiztuten ez ba'da.

KEPA

# GIZON ONGILLE ON BATEN BIZITZA

Idazlan onen bitartez gura neuke gure irakurleen begien aurrean ipiñi, gizon langille ta duin baten bizitza, oso MEZEDE-GARRIA izan zalako Gipuzkoa'ko lurralde baster baten, ta ez bakarrik toki orretan, baizik, ongarri Euskalerra guztirako izan zana.

Azpalditxoan basterralde ori entzuten da gure inguru guztian ta ludiko zati aundi batzuetan, bertako TRESNAK zabaltzen diralako ludiko txoko askeneteraño.

## GIZON ORI ON JOSE MARIA ARIZMENDI-ARRIETA DA

Berau jaio zan Bizkaiko erri txiki baten, zuzen esanda, BARI-NAGA errian Markiñatik amar kilometrora, sortaldera Bizkaiko ta Gipuzkoako MUGAN.

Erriko bizilagunak amar etxetan eleiza inguruan, moltzo baten, dagoz ta emparauak menditarteetan zabaldua lurginak diralako, landetxeetan.

Gure Jose Mari 1915'an Jorraillaren 22'an, ITURBE deritxon basetxean jaio zan.

Etxe artan izan ziran LAU anaiarriba, iru mutil ta neska bat.

Jose izan zan nagusia. Ta Euskalerrian dagon oitura bezela, bera izango zan etxeko Mayorazgo edo ETXAGUNA, sendiko oiturak ta etxea jarraitzeko, baiña iru urte eukazanean ostopo bat izan eban mutiltxo orrek, arrikada batek begi bat ezeztatuta itxi eutson, begi bakar bategaz gelditu zan. Ostopoa euki ta gero, aldatu ziran etxeko EGITAMU edo egin-naiak. Aurrerantzean ETXAGUN bezela bigarren semea, PATXI gelditu zan.

Orduan asi ziran amaren ardura guztiak ta bere buruko ausketak gure mutilla beste lan baterako gertaketan. Orditik aurrera amaren ardurik nagusia zan bere mutil maitekorra abadetzarako gertatzea.

Amarentzat oso egoki etorran, Iturbe etxean, abade bat eukitea, ta pozaren pozez, amak alegin guztia egin eban, ortarako bere seme kutuna gertetako. Sasoi artan SENDI edo Famili baten abade bat edo geiago eukitea edo Errelijiosu, omen bat zan.

Ganera beste etxe batzutan lez orduan basetxetan EGURATS on ona egoan Arratsaldeko illintabarrean basetxe geienetan ERROSARIO santua errezetan jentea etxean batuten ziranean; geienetan AMA izaten zan buru egiten zana, ta besteak erantzun, oitura ori orduan Euskalerra guztian zabaldua egoan, bakana izango zan, ori egiten ez eban etxea.

Jan aurreko errezuak be, jan bakoitzean egiten ziran, askotan egite ori, etxeko txikerrarena zan. Jaieguneko MEZEA, ez zan alde batera itxiten edozein AITXAKI edo aiko-maikogaitik.

Ta gure mutilla amabi urte arte edo apaitezgira joan arte abadearen mezalaguntzaillea izan zan.

Dana zan etxe artan ON BIDEA gure Josē M.<sup>a</sup> abade izateko, egoera ebeagoa ezin izan.

## JOSE MARI IKASTOLAN

SEI urte ebazala motil ori asi zan Eskolan. Sasoi artan ez zan egoten olako erri txikietan Eskola egokirik, bestelako Eskola SUPITUKO batzuk baiño. Barinaga'n be olakoa egoan.

Apaindu eben eleizaren edo Elizari EZARRITA gela bat SUPITUA ta lenengotan maixua be olakoa izan zan, lurgina ta sakristaua erabatera.

Garai artan Euskalerrian Orbain edo Nario aundieta zan Anafalbetoa edo ez jakiña izatea, edo KOKOLOA izatea.

1910 asi ta bai Gipuzkoan ta be bai Bizkaian asi ziran Baserrietan edo Auzoetan Eskola barriak egiten, orduko ALDUNEN ardureak egiten ebezan eskola orreik. Arin jaiki ziran edonun, orduan esaten geuntzezan ECUELAS de BARRIADA. Gauza obeagorik ezin eikian gure Agindariak egin laizter beraka asi zan leen esan dogun Orbain edo Nario ori, guztiz OSTENDU arte.

Jose Mari'ren bigarren Maistria Patrocinio Uranga izan zan, baiña erderazkoa, maiztra onek alegin egin eban Josē'gaz amabi urte arte, Lenengotan gure mutiltxoia eban konpontzen oso ondo izkuntza barriekin, oso gogorra izan zan beste izkuntza baten azaldutea ikasketak.

Borondatekoa langillea zalako apurka-apurka asi zan garaituten erdera ori. Geroago ta obetoago yoyan ta amabi urterako ez egoan berak esan ez eikien ulertu ta adieraztu edozin, ikaskairik. Laizter ei zan lenengotaikoa, bai Barinaga'n ta be bai ARTEA'n Artega'ra joan baiño lenago bai erriko abadeak ta bai gurasoak nai eban.

AZTERKETA bat egin ariñago. Ori egin zan abade biren aurrean Markiña'n Ikas-agiro onakin garaipena izan eta guztiak oso pozik gelditu ziran, urrengo iraillean ARTEA'ra joateko.

Zuzen esanda, bera mutil AZKARRA ta burutsua zan, ta langillea zala, ez eban euki bildurrik amaren babesetik urteteko, naita amari asko gura, MALKORIK bota barik etxetik urten zan.

## AOLKU BAT IRAKASLEEI

Berrogeita beratzi urte daroadaz Euskalerrian, maisu bezela.

Badakigu IZKUNTZA berri bat ikastea zailla izaten dala, bai buru argikoentzako ta besteentzat askoz geiago.

# EUSKALDUNAK

Erakusten asi nintzanetik, 1932'tik onantz, ori egiten ibilli naz ta oraindik jarraitzen dot.

Orduan zan Euskeratik erderara biurtzea ta orain bestaldera, Euskerara: Orduan ta orain bardin antzera egiten dot.

Orduan edozein IPUIN edo Ebangelioko Parabola bat, neuk Euskeraz esaten neutsen mutikoei ta nik esanda gero, eurek asiten ziran ATZAMARRA jasoten buru onenetaikoak esaten asten ziran. Ikastaroa edo klasea amaitu baiño leenago, batzuk, obetoago ta beste batzuk gitxiago baiño geienak ulertzen eben IPUINORI, ederki. Mutikoak NORBEREGANAKO MAITASUN aundikoak izaten diralako, danak, zeinik arinago ikastea nai dabe. Orregaitik mutikoei izkuntza bat orrelan irakastea oso erreza da.

Ipuin ori IDAZPEN bezela etxera gaubean egiteko eroaten eben, arrituta gelditzen nintzan ze ederto egiten eben: ta onelan urte batetik bestera OBEEKUNTZA edo Aurrerapen izugarria izaten zan. Azterketak egiten edonora joaten ziranean, beti garaille urtetan ziran edonun.

Orain, orduan erderara egiten neban bezela Euskerara egiten nabil, baiña notin nagusiakin ez da ain errez irakastea. Lan naiko eginda gero zelan etorten diran, burua nekatuta etorten dira, ta gainera ardura askokin euren barruan, ta naita ez izan erreza, alata-be beste modutan baiño ariñago ikasten dabe.

Ainbeste urteko AZTURA daroadalako, nai dozuena esaten dautzuet, beroi lan ori egiteko, ta ez dozue atzerakarrik izango.

## JOSE MARI ARTEA'ko APAIZTEGIAN

Eldu yakon EGIATZKO ordua, etxetik alde egiterakoa ta gure mutilla naita izan oso maitea etxean, andik ezelako naigaberik gabe ta malkorik urten barik urten zan, aldendu zan pozik, bere gogoa, artarako zalako.

Etxe barrian beti lez jarraitu eban pozik, alai, zabal guztien tzako, onelan ikaslekideekin oso ondo konpotzen zan.

Bera aurkitzen ei zan etxean ta auzoan bezela.

Lau urte emon eta gero, Gasteiz'era joateko, apaiztegi berri-berrira joateko Baiña ariñago ikusi daiguzan urte oneitako IKAS-AGIRIAK.

Urte guztietan izan ei ziran ezelako KULEPE barik edozein gaietan.

Erdera ori garaipenduta zelan euken eta ganera langillea azkarran zan bai Irakasleak ta bai gurasoak oso pozik agertzen ei ziran jokabidean ta ikasle bezela bere inguruko jente guztia oso pozik aurkitzen ziran.

## ALDAKETA BARRIA: GAZTEIZ'en

Josē Mari bostgarren ELERTIA edo Humanidades ikasteko Gazteiz'era joan zan 1931'ko iraillean. Aurreko urtean asi zan

Apaiztegi ori ta orretarako bertara eldu ziran Laterriko aundiki guztiak Erregeagandik asi ta Eleiztar nagusi geienak.

1931'an beste egoera edo aldakizun aundi bat be izan zan: ERREPUPLIKEA etorri zan, uste aundi barik baiña, eldu zan.

Españeko Katolikoan etsairik aundiena agertu ziran Aurreko urteko jai ederrak mustuetan egindakoak lurrera jausi ziran. Ardura aundia zan ango nagusien artean, kaleko ZALAPARTA ta Is-tilu guztiak somatzen ziran apaiztegi barruan ta danak agertzen ziran kezkatu edo ajolatsu, bai zuzendariak, irakasleak ta be bai ikasleak. Kaleetako zarraparrak edo iskilluak barruan nabaitzen ziran, ta ez zan eguratsik ederrena gauzak ondo konpontzeko ta mutil gazteak ikasteko.

Orduko sozialistak ez ziran oraingoak bezelakoak. Amorrutizala euken Erligiosoen, apaizen, lekaimen ta lekardeen aurka.

Euren arerorik aundienak ziran, edozein gauzaren usaia bazan erreligioaren alde. Zelan oraindik EZIBAKO jentea egoan, ainbat geiago jakin bakoa izan, amorrutizala eukerik gauzak ondo konpontzeko ta mutil gazteak ikasteko.

Elezako gauzarik ezin eben ikusi paperean margotuta be.

Onelan igaro ziran bost urte gure laterrian.

Ezin giñan konpondu bata besteakin, anaien artean oso jarrera txarra egoan bai kalean bai sendietan, ta bai lengo lagunaren artean. Denbora gitxian ezin ikusi ori, dan-dana zipoiztuta egoan erri txikietan eta aundietan.

Bost urte onetan emonda gero, txarrena agertu zan: Gure artean ezin konpondu ta GUDA ZATARRA eldu yakun iru urterako.

Bitartean gure Josē Mari'k jarraitzen eban Gazteizen, naita giro zatarran egon apaiztegi inguruan, barru urduritasuna pizkaka aldendu zan, oituru ziran egoera orregaz.

Oso pozik yoyan Josē Mari bere ikasketak ondo eroan ta aurrera yoyala jakinda. Olan egoala eldu zan emengo GUDA ZATARRA, danok Kiskalduta geldituzeko.

Guda ori asi zan UZTAILLAREN 18'an, ta Josē Mari egun orretan oporretan aurkitzen zan bere etxean. Barina'gan.

Orduan jausi zan Bizkaitarren aldean, ta emen arin jaiki ziran españolem aurka gazte guztiak, guda orreri arpegia emoteko.

Zer esanik ez dago, gazteen artean Bizkaitarrak ez eukerik be-izpenik eleizako gazteak eta enparauakin.

Baiña Josē Mari'k eukan lenegotik eragozpen aundi bat, iru urtetik aurrera BEGI BAKARRA zan. Orregaitik ez eben bialdu mendietara. Atzeko lanetan gelditu zan, orduko egunkari barri bat agertu zan ta emen, emoten eban bere denborea berri-idazle be zela. EGUNA'ren idazle bezela. Lan onetan euki eban lagun aundi bat, orain be gure inguruan jarraitzen dauena. Bere izena Agustln Zubikarai. (JARRAITZEKO)

ETXEBERRI'tar ISIDOR

---

# KOFRADIAK EUSKALERRIAN

---

## JAKINGARRIAK

### **Kofradia zer dan**

"Kofradia" berba au entzuten dogunean, geurea aitzuta daukagulako-edo, Andaluza'ko kofradi ospetsuak datorkuz burura, baiña kofradiak euskal-errian erakunde jakingarriak izan dira. Alde batetik, arrantzaleenak. Oneik kai guztietan dira ospetsuak, eta ezagunak be, geiago edo gitxiago ba-jakuz, baiña beste kofradi garrantzitsu batzuk dira euskalerrian, oraindiño be bizirik, baserrietako kofradiak.

Gure auzoetan diran kofradi oneik ez dira parroko anaidi batzuk. Auzoetan dagoz eta baseleiza baten edo batzuren inguruan izaten dabe euren bizitasuna ta zeregiña.

Gaurko "Sendien Bazkunak" esaten jakenen antza dauke, baiña orrez gaiñera euskalerraren usaiña ta berezitasuna.

Iturriza, Labayru eta Olako kondairalarien liburuak irakurten doguzenean, sarritan aurkitzen dogu "fogera" berbea, bear ba'da lar ondo ulertu barik. Zer ete da Fogerea?

Baseleizearen inguruan edo urrintxuago, baserri batzuk aurkitzen doguz. Eta baserri orreitan bizi diranak, batzuk etxagunak dira eta beste batzuk etxea alogorean edo errentan daukenak. Antxiña, bear ba'da, etxagunak nekezariak ziran eta alogorekoak artzaiñak. Oneik errezago tokiz aldatzen ziran. Eta etxagun orreik fogerearen jabe ziran. Jabe izateak eskubide batzuk eta eginbear batzuk eukazan auzo aretan, sarritan lur-arlo aundi-aundien jabetasuna be bai. Eta fogera ori jabetasuna zan, gurasoak seme edo alabai testamentu edo ilburukoan be itzi eikioezan etorpile lez.

Orixe zan fogerea, berbaldi onen azkenerako argi-gi ulertuko dozuen lez. Ez geiago eta ez gitxiago.

### **Baseleizea**

Nok ez daki baseleizeak gure kondairan zelako garrantzia izan dauan? Aste onetan be entzun dogu berbaldi bat gai oneri buruz eta aurrean izan dogu Kurutze Arregi andereiñoak argitaratu dauan liburu ederra arazo oneri buruz.

Baseleizea auzoarentzat Jaungokiokoaren babesaren ezaugarria zan eta babes ori Santuen bidez betetzen zan.

Baseleizak, asko beintzat, oso antxiñakoak dira eta euskaldunak kristiñauen federa sartu baiño lenago, antxiñako jaun-gurtza egiten zan lekuetan egin ziran. Beste batzuk oraintsuagokoak dira, orregaitik dagoz ainbeste tankeratako baseleizak, etxegintzari begiratu ezkeru batez be.

### **Santuak eta jaiak**

Kofradiaren zeregiña santu batzuk aintzat artzea izaten zan eta euren eleizkizunak eta jaiak gertatu bear ebezan. Geienetan santu bat baiño geiago izaten zan: Zaindaria eta gaiñera san Antonio edo Magdalena edo...

Santu orrein inguruan, jai egiten zan, ardatza mezea zala, baiña beste jolas batzuk be bai, gero esango dan lez.

### **Ondasunak**

Jai orreik ospatzeko, eta antxiña lur-arlo zabalak jabetasunari begira ain estu begiratzen ez ziralako, baseleizearen inguruan lur-arlo zabal eta aundien jabe izaten zan kofradia.

Eta ez bakarrik baso-arloak, sarritan etxeak eta beste ondasun batzuk be bai. Dana jai orreitako gazu-tetarako eta auzoaren bear-izanai begiratzeko.

Baso-arlo ta ondasun orrein jabeak fogeradunak ziran, eta ez etxagunak ez ziran auzokoak.

Baso-arloak sarritan kortabasoak esaten jaken era-koak ziran.

### **Kortabaso zer dan**

Eskalerritik kanpora be ba-dagoz olako basoak eta "sell" dabe izena.

Kortabaso, baso-arlo biribilla da. Erdi-erdian jarten da taketa eta an lotu soka edo kordela eta onek eun eta amalau neurkiñeko luzeera daukala, bakobi-

lla egin. Makobil orren barruan dagoan lur-arloari esaten jako kortabaso. Esan dogun neurri ori ez da beti bardiña izaten. Kortabaso batzuk aundiagoak be izaten dira.

Nik Manuel Estonba idazle ta abade euskaldunari entzun neutsan Euskalerrian nekezaritza sortu zanean, Erroma'tarren sasoi-inguruan, lurra zelan bantzen zan. Etxagunaren semea ezkontzen zanean, kortabaso emoten jakon eta geiago barik seme ori etxagun biurtzen zan. Antxiñako oiturea da ba, kortabasoena.

Izen orrek daukan "Korta" berbea nondik datorren? Bear ba'da toki orretan abereak batzen ziralako, abaroa egiteko eta beste zeregin batzutarako.

## KONDAIRA APUR BAT

### Azterketea egiteko

Kofradien, kortabasoen eta fogereren kondaira ez dago oraindiño aztertuta gure artean, gaia berez ain aztergarria izan arren. Nik sarritan esan deutset baimendun izateko edo irakasle, Dotore, biurtzeko maisu-lanak egin bear izaten dabezan euskaldunai, gai au artu dagiela, baiña ez dira ausartzen.

Kofradiaren oiñarria lenagoko auzoa da, zalantza barik. Baiña auzo orreik kristiñau izatera eldu ziranean, urietakoak baiño beranduago jazo zala ori diño, fede alkarte bat sortu zan auzoetan eta alkarte ori asieran parrokia zan. Orregaitik baseleizen inguruetan illobi asko aurkitzen doguz. Nik dakidanez ori jasoten da, esaterako Zeanuriko San Lorentzo'n, Uribe auzoan, eta San Migel'en, au Alzusta auzoan. Baita Dima'ko Lamindano'n eta beste leku askotan.

Eta baseleiza oneik zer-ikusi aundia euken monastegiakaz. Esaterako, San Lorentzo'n monastegia ei egoan eta oraintsura arte Orozko'tik be gorpuk ara ekarten ei ziran illobiratzeko. Gamiz neure errian neuk entzuna da orain eun bat urte gorpu batzuk Zeanarrutza'ra eroaten zirala lurra emoteko. Gai aztergarria benetan kondairazaleentzat! Eta Zeanuri'n amazpigarren gizaldiko bateo-liburuetan aitabitxi-ama-bitxiaki sarritan abatak izaten ziran: "Abad de Aranburu", "Abad de Asterria"... Gogoan daukat, Gazteiz'ko Abadegei-etxean Lekuona ta Barandiaran omenduak izan ziran eta etxe aren berrogeita amargarren urtea ospatzen zanean, Andres Mañarikua'ri

itaundu neutsala arazo orreri buruz, baiña gauzea ez zan argi geratu: Antza, Monastegiak ipinten ebezan olako abatak amarrenak eskuratzeko eta laikoak ei ziran. Orduan bear ba'da laikoa ta eleizgizona ez ziran gaur lez bereizten.

### Etxagunak eta alogorekoak

Fogeradunak guztiak ziran etxagunak eta guztiak ondasunen jabe baiña etxagunak ez ziranak be bauekezan eskubide batzuk lur-arlo orreitan: Orbela batu, sugarrria etxeratu, abereak barrutira eroan, eta abar.

Baiña beste arazo bat dago or oso jakingarria: etxagun ez ziranak ez euken autarkirik erabagiak artzeko, eta batzarrera joaterik be ez. Geiago, Gernika'ko batzarretara joateko be etxegunak izan bear ebela uste dot. Or gure erri-agintaritzaren utsune bat agertzen da, gaur-egun onartu-eziñekoa.

### Auzo-lana

Beste berezitasun eder bat kofradietan auzo-lana zan.

Baso-arlo aundi orreitan eta auzo-inguruan bideak egozan, eta bide orreik zaintzeko eta obetzeko edo bide barriak egiteko lana egin bear zan. Lan orretara deitzeko eskubidea eukan kofradiak eta iñok ez eukan lana ukatzerik. Ez dakit etxagunen eginbearra zan ori eta alogorekoena be bai.

### Kontu-liburuak

Kofradiak euren kontu-liburua eukiten eben eta an idazten eben urtero dirutan zer sartu zan eta zerk urten eban. Maiordomua zan arduradun eta urteroko batzarrean emoten ebezan kontuak.

Zeanuri'ko Ipiñaburu'n dan Santa Ageda Kofradian liburu ori amabostgarren gizaldikoa da eta orri baten auxe agertzen da: Maiordomu bate'n ez ebazala kontuak eroan bear dan garbitasunaz eta Kalaoarra'ko Gotzaiñaren oirdezko bat etorri zala kontuak eskatzen. Maiordomuak Eleizatik kanpoan ez gertzea nai bai eban, "ekskomuniñoa" ez leporatzea, epe labur baten barruan kontuak garbitu bear ebazan.



Altzusta'ko Kofradian be ba- dago amazortziganen gizaldiko liburu bat. Alde batetik daukaz kofradiaren kontuan eta atzeko-aldetik asita, baseleizearenak. Kofradiaren orriak kenduta dagoz. Ez dakigu zergaitik. Baseleizearen kontuetan gauza jakingarriak dagoz benetan.

Liburu au Altzusta'ko semea zan Angoitia abadeak Orozko'ra eroan eban eta andik Derio'ko Agiritegira eroan dabe. Antxe dago.

Zeanuri'ko beste kofradi batzuk be ba- daukez kontu-liburuak eta auzokideen eskuetan dagozela uste dot.

### Erregearen agindua

España'ko Karlos Irugarrenaren aldian, Godoy alduna zala, erregeak agindu naskagarri bat emon eban.

Erregeak dirua eukan urri antza, eta gudaren bat egiteko edo, bear ba'da, alabea ezkontzen jakonelako, nok jakin zergaitik, kofradietan ikusi eban dirua eskuratzeko era bat eta auxe izan zan: Kofradiak euren ondasun guztiak saldu egiezala eta ortik ateraten zan dirua Madrid'era bialdu erregeari eta erregeak diru orrean obariak ordainduko ebazan urtero. Egin ziran salketa orreik Gernika'n Muzkiz eskribauaren aurrean eta Madrid'era dirua bialdu be bai, baiña diruaren obariak edo korriduak ez ziran bein be etorri. España'ko erregea zordun da ba, kofradiai begira.

Baiña nok erosi ebazan lur-arlo orreik eta ondasun orreik, edo zer jazo zan?

Leku batzutan beintzat, fogeradunak eurak joan ziran erromata egin zanean eta eurak erosi ebezan lurrak. Orrelan len kofradiaren lurrak eta eleiz-bear-izanetarako ziranak, figeradunen jabetzara igaro ziran.

Gero, leku batzutan beintzat, lur orreik fogeradunen artean banatu ebezan eta banakakoen jabetzara igaro ziran ondasunak.

Tamalgarría benetan! Or Euskalerríaren jokabide eder bat galdu zan.

Dana dala, ori ez zan orrelan jazo beste leku askotan. Kasu bakoitza aztertu bear. Orregaitik diñot, kondaira-zaleak eta maisu-lanak egiten dabezanak or aztergai asko ta interesgarriak daukezela eta liburuak eta agiriak be nakoa ugari aurkitu leiz.

## GAURKO EGOERA LARRIA

### Erakundea osorik edo baten eskuan

Gaur kofradien egoerea oso larria da.

Fogeradunak eurak be erdi aitzuta dauke zer diran, fogerea zer dan eta zertarako dan.

Sarrítan lur-arloak or dagoz. Auzoak ez dauka lege nortasunik jabe izateko, Eleizearen jabetza ez da beti onartzen, Udal-Batza ez da jabe... azkenean ez dakgu jabea nor dan eta dana galtzeko arriskuan dago.

Ezagutzen dot kofradi bat, arduradun bat betiko ezarrítan daukana eta arduradun onek kofradiaren ondasun guztiak beraganatu egin nai dauz. Orretarako zer egin? Fogeradunai euren eskubidea erosi eta danak erosten dauzanean bera biurtuko litzake danaren jabe. Ori litzake kofradiaren eriotzea. Amazazpi fogeradun dirala uste dot eta bederatzi fogera daukaz erositá arduradunak.

Beste leku batzutan baseleizea ta soloa beraganaduta daukaz sakristau edo arduradun orrek. Ori ez da bide ona. Kofradiak bakoitxak bere ardureari erantzutea eskatzen eban, gero esango dogunez.

Dana dala, sarrítan jaiak egiten jarraitzen da eta erdi aitzuta dagoan kofradi izena daroe jai orreik.

### Kofradiaren erakundea

Kofradien erakundean, liburuetan argi argetzen dan lez, erri-arduralaritza edo demokrazi aundia agertzen da eta ori antxi ia ondo beteten zan. Gaur zori txarrez oso txarto.

### Arduraduna (Maiordomua) eta basozaiña

Kofradiak urtero egiten eban batzarra, sarrítan San Martin'en jai-inguruan eta batzar orretan arduradun izanak bere kontuak emoten ebazan eta liburuá urrengo maiordomuari emoten eutson.

Zelan jakin urrengo maiordomua nor izango zan.

Gauza erreza zan ori. Maiordomutza etxerik etxera igaroten zan eta guztiak ekien urrengo etxea zein. Orain be ori egiten da auzo batzutan.

Beste arduradun bat baso-zaiña izaten zan. Onen ardurea zan basoak zaintzea eta zaintze orren kontua urrengo batzarrean emon bear izaten eban. Basoalkatea be esaten jakon oneri.

## Santuen jaiak

Maiordomuaren egin bear bat izaten zan kofradiaren santuak, urte-barruan iru edo lau, euren artean zaindaria, ospatzea.

Orretarako abadeari dei egiten eutsan mezea esateko eta ordaindu be bai. Meza-ostean, kideko izan diran guztiai ardua emoten jaken eta arduak kalterik ez egian, ogia edo, geroago, galletak. Aspaldion beste janari batzuk be emoten dabez. Ori dana kofradiaren edo baseleizearen kontura.

Egun izendatu baten egurra saltzen zan erromatean.

Mezearen ostean jolasak eratzen ziran.

Aspaldion, astegunetan auzokideak lantegira joaten diralako, jaia larunbat eta igandeetara aldatzea erabagi da, baiña auzoko zarrak ori ez dabe nai izaten. Bere egunean ospatu nai dabe jaia, eta iztillu gogorrak izaten dira. Azkenean egun bietan egin bear izaten da jaia. Ez aitzu olako jaietara senide deituak be etorten dirala, konbidauak.

## URTENBIDEAK

Ori da kofradien gaurko egoera larria. Baiña zer egin arazoa bideratzeko?

Ez da gauza erreza urtenbidea aurkitzea, baiña zerbait egin bear litzake ain garrantzi aundiko erakunde au galdu ez daiten.

Ez dot ontzat artzen toki batzutan artuta ikusten dan jokabidea: Ondasunak fogeradunen artean banatu edo saldu eta kofradiaren illetea abestu.

Alkarteko ondasunak gaur iñoz baiño garrantzi geiago dauke.

Erakundea barriztau egin bear da eta auzokide guztiai, etxegunai naiz alogorekoai, eskubideak emon barditasunean. Fogeradunak apal onartu bear leuke auzoaren ondasunak dirala eta ez eurenak.

Ortik asita, gaur diru-laguntzak be izaten dira-ta, baseleizak barriztau, gure sustraiak galdu ez dagiguzan.

Guztiai ekin urtero arduradun izan daitezcan, al bade eurak eta ezin ba'dabe beste batzuren bidez, ordezkoen bidez.

Zeanuri'ko kofradi baten, geratzen ziran arlo txikiak saltzea erabagi ebenean, batek onelan berba egin eban: Nik mesede bat eskatuko dautzuek, niri dagokidan zatia baseleizearen ondoan emon egistazue, baseleizearentzat itzi dagidan. Ori entzun ondoren besteak be ez ziran ausartu banaketa egiten. A bai benetako gizona eta benetako euskalduna!

## Amaitzeko

Jaun-andre entzuleok! Orra or euskaldunok bear dan lez kontuan artzen ez dogun arazo bat. Aztergarria benetan, gure sustraiak nondik norakoak diran, gure gizarte-zaletasuna edo sozialismoa zelakoa izan dan jakin gura ba'dogu.

Amaitzeko, labur, ondoren batzuk atera bear dodaz:

- Billatzailleak arazo au aztertu dagiela.
- Kofradiak berbiztu daitezela.
- Gure baseleizak konpondu eta iraun dagiela.
- Auzoetako jaiak egokiro eratu daitezela.
- Ondasunak gizarte-balioa ez dagiela galdu.
- Kofradiak guztien ona eta guztien laguntzaz birlatu dagiela...

OLAZAR'tar MARTIN'ek

## GIZADIAREN ARDURAZ

Gizadiaren elburua bere egite ta sinismenean dago. Lurreko giza-bizitza, aurrera, eroan al izateko, ikastetxeak, lantegiak, legeak, espetxeak jarri ditu gizarteak. Gauza guzti onek bizi-bearrak, berez berez, gogoratu eragin dau-tsoz gizonari. Izan bere, lurreko bizitzak jakituria eskatzen dau, ta ortarako, lurrean dagozen izakirik bikaiñenak buru argizko andra-gizonak dira.

Buru almen orrek, berez, izatez, eskatzen dabe argitzea, landutea, zuzentza. Gizonak ortarako sortu ditu ba, ikaste-txeak, jatorriz datorkigun jakituri legeari erantzunez, bizi-tza obeagoa sortu ta egokiago batean bizi al izateko. Jakitu-riak, ondoren, dakarz lan era obeak baserrian ta lantegi osotuagoak kalean. Geroago ta lanak errezago egitea da ikasiaren & saria.

Ta lan guztien artean ezaugarri bat izan bear dau gizar-tean, alkartasuna. Buru argi, zuzen, eratuak ta giza biotz, ondo, tajutuak, arean geiago eskatzen dabe alkartasuna gi-zartean. Baiña zer dago gizartean bakearen orde burruka ta maitasunaren orde gorrotoa sortzen dabena...? Joka-bide onen inguruetan legeak bear dira giza-semearen esku-bideak jagon al izateko.

Alan be gizona gizon, ta arrokeria dala, edota gaiztake-ria dala, txarkeriak egin barik ezin egon, bakea ausi bear ta gizonak gizonari zor dautson maitasuna il bear. Benetan, jokabide au gizadiaren zoritxar biurtu da. Emendik eska-bide barriak datoz, bakerik izando ba-da, espetxeak bear; au da azken gomaillara eltzea, buruz eta biotzez askatasu-nerako jaio zirenak, burdiñezko tranka artean bizi bearra.

Gaizkillearen duintasuna, or, geratu da bestuta, gaizta-keriagaz eta presondegiagaz. Berez argi artean bizi izateko jaio ta norberak aukeratu illunperako bidea... izatez maita-sun bidez askatasunerako jaio ta basa-mortuko bakarda-dean sartzeko irabaziak norberak egin...! Autu larria da be-netan zentzundun gizonarentzat.

Mundu zabalean izan dira Jesusen Apostoluen antzera irakatsi ta eskubide zainduenak zaintzen ta erriari argirik beiñenak emoten ibili direnak, euren eskubideak zaintzen ibiltarren, leotz baltzetan erabiliak... Amaika olako ta geiagoz gure erria, ondo, mindua izan da... Gizon zuzen onek goragarriak dira, euren argia ta maitasuna erriari, era orretan, eskeiniak. Onek dira errien salbatzailleak, gorroto barik eta maitasunez euren errien alde bizia eskeintzen da-benak. Argia euken euren barruan, egia munduari ager-tzeko ta maitasuna biotzean minduak eta zapalduak, po-zez, indartzeko.

Onek, egin, goratuak izango dira edestiaren bizitza guz-tian kristiñauen giroan, betiraun guztian... Tajua ontako gi-

zonak gure artean be izan genduzan ta aintzaz goratu dai-guzan gure erriaren lora eder onek. Azi ona erein eben, gure gizadiari argi egin eutsen ta maitasunez erriaren alde euren bizia, oparo, urtu ta laster arte agurtu ginduezan.

Lurraren bigarren arpegia askoz ederragoa da, baiña au-rrera, eroaten askoz zaillagoa. Bein baten, mutil gazte ba-tek , poliki poliki, urreratu ta Jesusi esan eutson: "betiko zoriona izateko, zer egin bear dot"; Jesusek erantzun eu-tsan: "amar aginduak bete egizuz". Gazteak diño: beti ale-gindu izan naz aginduak beteten". Jesusek erantzun eu-tsan; ondo, diñozu, baiña eginbearreko gauz bat daukazu; "Zeure ondasun guztiak beartsuei emon eta jarraitu egi-dazu". Gazteak bildurrez alde egin eban, ondasun aundien jaube zan ba...

Jesus, emen, ez daukanagaz errukitzen da. Munduan jentea, goses, ikusteagaz min artzen dau. Beartsuaren miña eta zauria bere min eta zauri biurtzen dira, seme baten zau-riak aita onaren biotza minberatzen dabe eran. Mundua ez da sortu ba gaiztakerietarako, zapalakerietarako ta gorrotoe-tarako.


Anaitasunaren baratza bat izateko sortua da lurra. Zeu-retzat nai ez dozunik, bestearentzat be ez dozu nai izan bear. Au da munduak ulertu ezin daben izkuntza, baiña berba onetan dago, guk mundu guztian bear genduken ja-kituri zuzenaren sustraia. Norbere burua lez besteak be ikusi nai izatea. Au izango litzake munduko ondasunak, lu-rrak, burdiñak, urreak, zidarrak, arrolivak ta gizonaren ta-lentuak ondo, erabiltea gizadiaren otseintzarako.

Jakituri eder au zabaltzen dabillen jentia ba-da mun-duan, ta egi onen alde odola ta bizia emon daben giza seme ta alabak gizadiari irakatsi ona emon dautse. Azia erein eben lurrean ta urko-laguna norbere burua lez maite ebelako, beartsuen alde eskeini eben arnasa. Onek dira be-tiraun guztian Aitaren pozez, izango direnak.

Atxilotua askatzera etorri naz esan eban, munduan eza-gutu daben pertsona arrigarrienak... Guzurrak, arrokeriak, ez-jakiñak norberekoikeriak, gaitz guzti onek gizadia zapal-duta dauke. Egia da gizonaren bizia, bakarrean eta gizar-tean, askatu bear dabena; au berezkoa da; norbere bizia, apaltasunez, gizadia askatzeko emoten dabena, ori da egia-ren jaubea.

Egia, soil soillik, dabil etsai guzti orren aurka burrukan, ta pizti orrek irauten daben bitartean, negarra ta gosea izango dira lurrean.

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*



**Bilbao Bizkaia Kutxa**